

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI,

OSOKO BILKURARAKO PREMIAZKO INTERPELAZIO ZUZENA, UDAL GOBERNUAK KUTXABANKEN JARDUNBIDEEN AURREAN DUEN ZEREGINARI BURUZKOA DELA ETA

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniegok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 97. artikulua ematen dion aukera baliatuz, OSOKO BILKURAN PRESAZ AZTERTZEKO INTERPELAZIO ZUZEN hau aurkezten dio Eneko Goia Laso alkate jaunari, Udal Gobernuak Kutxabanken jardunbideen aurrean duen zeregina dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

Intxaurrondo Zaharra izan da banketxerik gabe geratu den azken auzoa.

Azken urteetan, bankuek etengabe desagertu dituzte arreta pertsonaleko bulegoak, bai Donostian bai beste udalerrri batzuetan. Egoera hori izan zuen Donostiako lehen auzoetako bat Herrera izan zen, 2017an bertako bulegoa itxi zutenean.

Duela gutxi, Bidebieta geratu zen bankurik gabe, eta hango biztanleek Trintxerpera edo urrunago joan behar dute orain zerbitzu bila. Donostiako Udalak, auzotarrek sinadurak bildu ondoren, Kutxabanki eskatu zion bulegoa ez ixteko, baina ez zuen erantzun positiborik izan.

Intxaurrondo Zaharrean, Caixaren eta Euskadiko Kutxaren bulegoak itxi ondoren, Kutxabankek bezeroentzako arreta-egoitza itxiko du apirilaren 13an. Bulegoan jarritako ohar informatiboak erakundeko bezeroak Gros auzoko Kale Nagusiko bulegora gonbidatu ditu.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Kontuan izan behar da biztanleen zati handi batek, adin jakin batetik aurrera bereziki, ez duela gaitasunik Internet bidez zerbitzua erabiltzeko eta nahikoa arazo duela kutxazain automatikoa erabiltzeko. Beraz, horrelako murrizketek arazoak eta mugak baino ez dituzte sortzen herritar hauentzat. Hemendik aurrera, Intxaurrondon, batez ere adineko askorentzat, nahitaezkoa izango da autobusa hartzea, beste pertsona baten mende egon nahi ez badute, Kutxaren zerbitzuak jaso ahal izateko.

Argi dago aurrezki-kutxa publikoak izandakoen pribatizazioak ondorio kaltegarriak ekarri dituela. Izan ere, besteak beste, urtero handitu dituzte komisioak, Europako herrialde gehienek baino ehuneko handiagoan, eta maileguak garestiagoak dira. Baina, aldiz, zerbitzu publikoa gutxitu egin dute.

Kontuan hartuta Donostiako Udala Kutxa Banku Fundazioaren berezko patronoa dela, erakunde horren sortzailea izateagatik, uste dugu badituela beharrezko mekanismoak Kutxabanki banku-jardunbide txar horiek bertan behera uzteko hertsatuki eskatzeko.

Auzo berri batean itxi behar dute bulegoa eta Donostiako Udalak egoera honek aurrera ez jarraitzeko dituen baliabideak martxan jartzea eskatu nahi dugu, hala nola, bulego gehiago ixtea eragotzi dezan. Izan ere, sukurtsalak ixtearen ondorioz, pertsona askok ez dute beren dirua leku seguru batean gordetzeko aukerarik, ez eta zerbitzu duin bat jasotzeko aukerarik.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

INTERPELAZIOA

- Zer dela-eta ez dio Udal Gobernuak, Kutxa Banku Fundazioaren Patronatuan duen ordezkariaren bidez, Kutxabanki eskatu egiten dituen jardunbide txarrak bertan behera uzteko, auzoetako bulegoak ez ixteko eta zerbitzu presentzial egokia bermatzeko?

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

- Zer dela-eta ez dio Udal Gobernuak Kutxabanki eskatu Intxaurrondo Zaharreko sukurtsal horretan zerbitzua mantentzeko?

- Zer egingo du Udal Gobernuak hemendik aurrera auzoetako sukurtsalak mantentzeko eta Kutxabankek bulego gehiago ez ixteko?

Donostia, 2022ko apirilaren 22an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia